

## 4.GAIA. BEHAKETA

Helburuak markatzen du teknika eta izaera. Intentzionatua izaten da.

### BEHAKETA KONTZEPTUA

**Behatzea:** “**behatzailearen nahita egindako jokabidea, non helburuak zuzentzen diren hipotesien baieztapenerako edo egiaztapenerako datuen bilketara**”

Helburuaren garrantzia azpimarratzen du, helburu jakin batekin behatzen dugu, horrek teknika erabakiko duelarik. Honela, hipotesiak egiaztatzen zuzentzen da.

**Teknika guztiak behaketa mota gisa ulertuak** Autore batzuk diote, teknika guztiak behaketa mota gisa uler daitezkeela. Adibidez, galdesortetan behaketa mota bat ematen da. Bestalde, elkarrizketan behaketa inplizitua dago. Baina guk behaketa soilik gure begi eta belarriak erabiltzean. Objektibitatean ere anplifikadore batekin.

### 4.1. BEHAKETARAKO ANALISI-UNITATEAK ETA NEURKETA-UNITATEAK

**Behaketa unitatea ulertzeko ikuspuntuak:**

- **Objektua: pertsona(harremanak), taldea(unitate banaezina) instituzioa (jokabidezko gertakaria)** Adibidez, psikologia fakultateko jarrera eta arreta maila nolakoa den.
- **Denbora-tartea** Denbora gutxi portaera batzuk edo besteak behatzeko helburua zehatza denean. Hau da, portaera zehatzak ikusi behar badira denbora gutxirekin nahikoa da informazioa errazago eskuratuko baitugu. Adibidez, ikasleak apunteak hartzen.
- **Ebaluatzaileak egindako eragiketak: deskribapena, sailkapena** (arazo hau edo beste), **inferentzia egitea** (bestelako portaerak aztertu, hemen portaera orokorrak hartzen dira kontuan).
- **Harremanak** Ez zaigu pertsona bat edo bestearen portaera interesatzen, bien arteko interakzioa baizik. Eragiketak. Bikote baten harremana aztertu nahi bada, baten jokaera eta bestearena aztertzea ez da nahikoa, interakzioa aztertu behar da. Bikote interakzioa ere garrantzitsua da.

### JOKABIDEEN OSOTASUNA:

**Ikuspegi ekologiko-naturalista, gertakari asko, testuinguru naturala, erregistro deskribatzailea, denbora-tarte handiak** denetatik zabalena da. Mota honetako ikuspegi ekologiko-naturaletik egingo genuke. Gertaera asko daude gure interesekoak direnak, ez dugu zehazten zer aztertu, oraindik ez dakigulako zertan zentratu/fijatuko garen. Erregistro deskribatzailea eta denbora-tarte handiak (ez dakigulako zer behatu nahi dugun). Honakoa antropologoak egingo luke.

– **1) Behatu beharreko jokabideen zehazterik ez** Ez dakigulako zer gauden bilatzen, zain gaude, gauza interesgarrien zain gelditzen gara.

– **2) Denbora errealean eta modu jarraituan (iraupenaren zehazterik ez)** Denbora-tarte horretan erregistratzen dugu zer gertatzen den, modu jarraituan egiten dugu, datu interesgarri gehiago bilatuko ez dugula pentsatzen dugun arte. Ez dugu aurrez zehazten zenbat denbora eramango digun. Naturalista.

– **3) Ahozko, ez-ahozko edota espazioko alderdien deskribapena, behatzailearen inpresioekin batera** Ahoz entzuten dena eta ahozkoa ez dena. Behatzailearen inpresioa ere sartzen da. Adibidez, aharrausi egitea eta guk esatea hori aspertuta dagoelako dela (gure inpresioa da).

### **ATRIBUTUAK:**

**Behaketa** → **atributuak edo teoriak lortzeko (azaldutako jokabideetatik inferentzia)** Portaera baten atzean dagoena interesatzen zaigu. Inferentziak egin nahi ditugu ikusten dugun horretatik. Hau da, atzean dagoena aztertu nahi dugu, ebaluazio intrapsikikoa.

Portaera zehatza → hankaren mugimendua (urduritasuna), alde egiteko saiakera (ekiditeko jarrera), negar hasiera (afektu negatiboa), erlojuari begira zenbat gelditzen den galdetuz etengabe (kezka) → parametro motoretan zentratuz edozeinek antzemango lukeena. Guztiek batera → antsietatea. Ez da ekintza bera kontuan hartzen, behatzaileari azken hori interesatzen zaio.

Hauek ez ditugu ikusten, hori bilatzea interesatzen zaigu, bestea bitartekari hitsa da.

– **1) Ekintza berak baliorik ez, elaborazioa atributu intrapsikikora iristeko** Ekintzak berez ez du garrantzirik, hemen inferentzia egiten dugu bi mailatan.

– **2) Datuen elaborazioa momentuan edo gero**

– **3) Denbora-tarte handiak erabiltzen dira normalean** egun batean soilik ezin dugu ondorioz atera.

### **JOKABIDEAK:**

**Ikuspegi konduktualetik, azaldutako jokabideak (motoreak, ahozkoak edo fisiologikoak), zehaztasun continuum batean** Ikuspegi konduktual batetik, mota ezberdinetakoak izan daitezke eta continuum batean ematen dira. Aulkiaren mugimendua portaera hutsi izan daiteke, zehatzagoa (atzera begiratu aulkia mugitzea eskola jarduera oztopatuz) edo zabalagoa (aulkia mugitu) behatzailearen arabera. Jokabide zehatzak interesatzen zaizkigu, zehaztasun continuum batean. Jokabidea interesatzen zaigu.

– **1) Jokabideak (edo motak) alde aurretik zehaztuak** Portaerak aurretik zehaztuak daude, badakigu zerri erreparatu behar diogun.

- **2) Unitate-analisiak teorikoki edo enpirikoki formulatuak** Maila teoriko edo enpirikotik.
- **3) Inferentzia maila txikiak** Inferentzia maila oso txikia, behatzen dugunarekin gelditzen gara. Behatzen duguna objektiboa da, horregatik behatzaileen artean kontsentsu handia dago.
- **4) Denbora-tarteak eta iraupena ondo aukeratuak** Iraupena eta denbora zehaztea ondo aukeratuak daude. Izan ere, ez da berdina klase hasieran edo amaieraz aztertzea gauza bera. Adibidez, 10 minutu klase amaieran aztertuko da.

### **ELKARRERAGINAK:**

**2 (edo +) gertakarien arteko erlazio funtzionala (pertsonak, pertsona-inguruneak dimentsioa), sekuentziala(denboran zehar gertatzen da gertakaria)** Interakzioa pertsonen artean (pertsona-pertsona) edo pertsonaren eta bere ingurunearen artean (pertsona-ingurunea).

- **1) Jokabideak (edo motak) alde zuzenetik zehaztuak** Garrantzitsua da portaerak aurrez zehaztea. Adibidez, pertsona bere etxean edo gelan ikasten. Interakzioak ere erabaki behar dira.
- **2) Subjektuak, taldea, ingurunea (elkarreragin erreziprokoak)** Elkarreragin erreziprokoak gertatzen dira. Igual ikaslea jo du, gero besteak jo dio, eta gero besteak. Agian erantzungo ez balio, ez luke berriro joko. Behaketan soilik norabide batean zentratzen gara.
- **3) Denbora-tarteak ondo aukeratuak** Denbora tarteak ondo aukeratuak daude. Noiz eta zenbat denbora.

### **EMAITZAK:**

**Kanpo edo barne aktibitateen bildumaren emaitza** Behaketa egitean, behaketan baino gehiago amaierako produktua interesatzen zaigu, emaitza interesatzen zaigu. Agian marrazki bat egiteko eskatzen diogu, baina berdin zaigu egiten duen bitartean zer egiten ari den.

#### **2 emaitza mota:**

- **Neurri ez erreaktiboak (iraganean):** Agian guk kristala apurtuta baina nik produktua behatzen dut, ez gaude bertan. Iraganean aplikatutakoak eta behatzaileak ez zeuden bertan.

**Erosioa** apurketa/desgastea, objektuak beste itxura bat hartzen du. Adibidez, leihoa hautsia.

**Aztarnak** kontsumitu izan denean seinalea, kontsumitu duen zerbait. Adibidez, pipa azalak.

**Fitxategia** gordetzen duten testigantzak (marrazki, etxeko lanak, papalak, notak, azterketak)

– **Gauzatzeen emaitzak ebaluatuak eskatuak:** Erreaktibitatea sortzen da, gure presentziak eragina duelako. Gu presente gaudenean erreakzio bat sortzen dugu, aurrean gaude momentuan.

**Marrazkiak, jokoak, buruhausteak, istorioak, idazketak,...**

– **1) Behaketa ez erreaktiboak: ebaluazioa eta tratamenduen balorazioa**

– **2) Gauzatzeen behaketa eginbehar estandarizatueta: konparazioa**

– **3) Ezin da maila altuko inferentziarik egin, edo erlazio kasualik ezarri**

-----

**Analisi-unitateak neurketa-unitateen arabera zehazten dira (kuantitatiboki), behatutako gertakariak propietate edo dimentsioetan neurri zehatz batean:** Ez soilik zerri ematen diogun arreta, horrekin zer egiten dugu baita ere.

– **Gertatzea** Edozer behatzen dugunean, agertzen den edo ez interesatzen zaigu. Behin agertzearekin nahikoa da, berdin zaigu zenbat aldiz. Tratu txarra edo bullying-a adibidez.

– **Maiztasuna (zenbaki absolutuak edo tasa)** Behatzen duguna zenbatetan azaltzen den interesatzen zaigu. Maiztasuna urria bada ez zaigu interesatzen. Albokoarekin hitz egitea normala da, baina 15 aldiz gertatzen bada interesatzen zaigu. Zenbaki absolutuak edo portzentailekin.

– **Iraupena (Gaixotasun mentala diagnostikatzeko sintoma jakin batzuk 6 hilabetez, DSM**

**Iraupena**

**Latentzia** Estimulu – erantzun(jokab bat in) arteko denbora.

**Erantzun-arteko tartea** erantzun bera behin, berriro, berriro.. Zenbat denbora lehenengotik bigarrenera. Adibidez, klasean hitz egitea. Batetik besterako tartea.

– **Dimentsio kualitatiboak** Ez kuantitatiboa, kasuaren arabera batek edo besteak izango du garrantzia gehiago. Adibidez, ikasten duen haurrak ia etxeko lanak egiten dituen. Gurasoei galdetu edo gu joan haurraren etxera ikasten duen ikusteko. Agian egun batean astean bakarrik, agian egunero (kuantitatiboa) eta ordu bat (iraupena). Dimentsio honetan ikasten dago edo beste zerbaitetan (dagoen denbora ia aprobetxatzen dagoen).

**Intentsitatea edo magnitudea** intentsitatea: benetan gogor; magnitudea: egokitasuna, batzuetan denborarekin lotua.

**Egokitasuna (asmatu/erroreak; gehiegi----gutxiegi):**

– **Denbora eta kalitate dimentsioak**

## 4.2. ERREGISTROKO TEKNIKAK

**Erregistroa:** Behatzaileak errealitatearen irudikatzeaz egiten duen transkripzioa, kode zehatzak erabiliz, eta euskarri fisikoan gorpuzten dena. Euskarri fisiko baten kodatu, erregistro batean objektiboki. Behaketaren emaitza edo gorpuztea. Batzuk oso zehatzak eta beste batzuk ez horren beste, egituratze mailaren arabera sailkatuko dira.

**Egituratzea mailak: (egiturau gabeak izan daitezke, info asko ez dugunean, gero behaketa sistematikoa)**

– behatzailearen erreferentziatzeko eredu teorikoa kontuan izan behar da.

– behaketaren aldia

– Behaketa-tresnen (6) sailkapena Egituratze mailaren arabera 6 behaketa maila. +

### NARRAZIOZKO ERREGISTROAK:

**Formatu malguak subjektuen aktibitateen ezaugarri eta mota asko jasotzeko** zabalena da. Erregistroa korrelazio baten arabera egiten da. Erregistroa narrazioan oinarritzen da. Formatu malguena da, egituratu gabea, alde aurretik ez dugulako zehazten zer behatuko dugun.

**Ez dago alde aurretiko egituratzea, datuak hartu (ahoz zein idatziz), testuala** Egituratze maila baxuena da. Ikuste dugun guztia apuntatzen dugu. Ez dao planteatu portaera jakina.

**Kode egituratuen ezartzeko aurreko aldia** izan daiteke. Adibidez, hurrengo fase baterako subjektuak edo jokabideak aukeratzeko. Hau da, hurrengo fase batean zer behatuko dugun jakitea interesatzen zaigu, baina ez beti. Beste batzuetan bestelako faseak ere egon daitezke. Ez da maiztasuna begiratzen, jokabidea eman den ala ez baizik.

**Erabilgarriak jokabideak gutxitan azaldu** Erabilgarria da jokabidea ez bada askotan azaltzen. Izan ere, ez gaude zenbatzen. Hau da, arreta deitzen diguten jokabide arraroak apuntatzen ditugu, arreta deitzen diguten jokabideak azaltzen. (alde ona)

**Soslai-iturriak:** nahiz eta antzeko deskribapenak izan, desberdinak dira eta hortaz subjektiboak. Hau da, esanahi ezberdinak. Zaila da homogeneizatzea bakoitzak bere irizpidea erabiltzen duelako. (alde txarra)

– Behatzaileek ahozko deskribapen desberdinak jokabide edo patroi berdinerako

– Kategorizazio edo esanahi desberdinak ondorioztatu

### HAUTEMATE-ESKALAK: (Beste norbaiti eskatze zaio behatzea, epailea)

Pixka bat egituratuagoa dago, nahi duguna egin dezakegu.

**Aktibitateen sailkapena, kuantifikazioa, edo kalifikazioa lortu nahi denean**

**Epaile baten hautematea deskribapen baten intentsitatea, maiztasuna, edo egokitzea** Gu ez gara epaileak, pazientetik gertu dagoen norbait baizik. Ezaugarri nagusia: ez dugu guk egiten, epaile bat erabiltzen dugu. Epaile hori behatu nahi dugun pertsonarengandik gertu dagoen pertsona da. Ebaluatzailea ez da behatzailea.

**Behatzaileak-epaileak aldeztatik subjektua ezagutzen du.** Erreaktibitate saihesten da. Gurasoak adibidez, beraz, hauek jarraitu behar duten protokoloa zehatzagoa da.

**Informazioa behatu ondoren eman** Gertatzen denean edo horren ostean eman dezakete informazioa. Agian hurrengo saiorako da.

**Deskribapenak: erreferentziako eredu teoriko eta helburuak** Guk kutsu bat edo marko bat emango diegu.

### **Analisi-unitateak oso desberdinak**

**Abantaila: lehen hurbilpena** Lehen hurbilpena izango dugu eta informazio horretatik abiatuta galdera zehatzagoak eginez jarrai dezakegu.

**Desabantaila: kanpo iritzien kutsadura (halo efektua)** Kanpo iritzien efektua. Gehienetan igurikapen inferentzia badugu guk, epaileek oraindik eta gehiago. Adibidez, haurra etxean gaizki portatu da eta gurasoek filtro horretatik abiatuta egiten dute. Hau da, aurreiritzi horrekin beteko dute erregistroa. Adibidez, pierde tiempo al vestirse: 1-2-3-4-5-6-7.

### **JOKABIDEEN KATALOGOAK: (apuntietan fotua)**

**“Ezaugarrien zerrendak” ere deituak** Portaera batzuen zerrenda.

**Jokabide batzuen zerrenda, batzuetan mota desberdinetan sailkatuak, eta batzuetan inguruaren aurrekari eta ondorioak agertzen dira** Portaera batzuen zerrenda dugu eta hori aurrekari eta ondorioekin lotzen da. Aurrekari + ondorioak: portaerak + horrek dakarrena zerbaitekin lotu (eguneko unean, testuingurua..). Ez da soilik zer, baizik eta zerekin. **Ohikoenak jokabideen erregistroak eta elkarreragineko matrizeak dira**

**Behatzailearen esfortzu txikiagoa (laburdurak ikasi ez)** Teknika hau errazagoa da ondorengoarekin alderatuz, ez baitira laburdurak ikasi behar. Guk geuk egiten dugu, epaile batek egitekotan errazagoa izan beharko da eta hau epaileentzat konplikatu da.

### **Erabilera askotako erregistroa: egoera desberdinetarako aplikagarria**

**Jokabideen kategorien kopurua txikia** Kategoria kopuru txikiarekin erabiltzen da. Bestela konplikatu egiten da. Matrize bat badugu jokabide gutxiago. Informazio asko gal daiteke jokabide soilak hartzen badira kontuan. Interesa daon hortan zentratu.

**Elkarreragin diadikoetarako (triadikoak) aplikagarria** Elkarreragineko matrizea denean.

Hipotesiak egiteko aldatzeko edo baieztatzeko balio du.

## **KATEGORIEN SISTEMAK:**

“Kodeak” ere deituak Kodeak erabiltzen dira.

**Behatu beharreko gertakari konduktualen edota kontestualen zerrendatzea, deskribapena, eta sailkapena inplikatzeko dute, eta behaketa egiteko modua ere bai** Ikuspegi kognitibo-konduktuala. Agerpena eta maiztasuna azaltzen da.

**Sofistikatuena eta eraikuntza-prozesu luzea** Sofistikatuena. Lan asko eskatzen, ikerketan. Kontestu klinikoan eta hezkuntza EZ. Horretan lan egin duen norbaitek egin behar du, behaketa zailtzen da hau erabiltzen dutenak adituak izan behar direlako. Testetarik hurbilen daudenak dira.

**Kode estandarizatuak eta tipifikatuak: berme zientifikoa** Estandarizatuak eta test psikometrikoek bezala funtzionatzen dute. Beste erantzunekin konparaketak egin daitezke.

**Jokabide edota elkarreragin konplexuei buruzko informazioa** Informazio oso ona (abantaila) baina oso konplikatu, garestia (desabantaila). Animaliak behatzeko erabiltzen dira bereziki, ikerketetan eta etologian.

### **EMAITZEN ERREGISTROAK:** (botoiak, makinak)

**Jokabideen emaitzei buruzko erregistrorako sistema konplexuak** Ez dugu aztertzen gertatzen ari dena, gertatu den zerbait aztertzen dugu. Bukaera soilik interesatzen zaigu, tresnak erabiltzen dira eta batzuk oso konplexuak dira.

**Eginbehar baten aurrean, behatzaileak puntuazioa ematen du dimentsio batzuen arabera (denbora, asmatu/erroreak,...)** edo bestelako sistema konplexuak.

**Adimen, gaitasun, errendimendu, hizkuntza trebetasuneko testak** Prozesu kognitiboak aztertzeko.

### **ERREGISTROKO PROZEDURA AUTOMATIKOAK:**

**Behatzailearen lana erraztu, erregistratzearen soslaiak ekidin, eta erreaktibitatearen efektuak desagertarazi.** Hiru mota: Objektibitate maila handiarekin. Software+hardware jakinak erabiltzen dira. Saguekin erabiltzen dira hauek, kamera jarriz eta ondoren aztertuaz; edo gu atzean gaude eta ez gaituzte ikusten (ispilu bikoitza). Izan ere, kamerarekin pertsona inhibititu egin daiteke. Arrotz egoeran lagungarri izan daiteke baina berez ez da hori. Erregistrorako lagungarria izan daiteke edo gainontzeko guztiak konplimentatzeko. Erreaktibitatea gutxitu dezake baina inhibititu ere egin dezake. Horregatik ohitze aldi bat sortu behar dugu.

– **Erregistroko bitarte teknikoak (Datamyte 900, Sistema 7 (SSR), Behaketa konduktualeko puntuazio sistema (BOSS)**

– **Erregistroko aparatu ezkutua edo urrutikoak (bideoa, ispilu unidirekzionala,...)**

*Erreaktibitatea: behatua sentitzean, portaeraz aldatzean datza. Hortaz, lorturiko emaitzak ez dira errealak.*

– Aparatuen bidezko behaketa (erregistro psikofisiologikoak)

#### TEKNIKAREN AUKERAKETA:

-Aztertu beharreko jokabidearen konplexutasuna eta zehaztasuna (egituratzea eta planifikazioa)

-Gertakari ondo zehaztuak eta gutxi: jokabideen katalogoak

-Elkarreragina: elkar. Matrizea: kontingentzia aztertu nahi bada.

-Dispositibo automatikoak (erreaktibitatea) Erreaktibitateak eragina izan dezakeela uste bada. Erreaktibitatea gutxitzea garrantzitsua denean. Autobehaketa posible iteun moduk erabili, jokab bat erregistrau adib mobilan bidez.

-Hurbilpenerako (eta ezintasuna): hautemate eskalak

#### 4.3. LAGINKETA-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

Ebaluatzeko objektua diren gertakarien lagin errepresentagarriak lortzea Lagina esanguratsua izatea, populazioaren isla.

Erregistro jarraituak ezin direnean egin, erabakiak hartu behar: (teorian eta esperientzian arabera)

– Zenbat denboraz luzatuko den behaketa ea 5-10min jarraian zenbat denboraz egingo den.

– Zein maiztasunez behatuko den Zenbat aldiz izango diren saioak, bertan, kostuei ere erreparatu behar zaie. (uneoro ezin egon)

– Zeintzuk momentuetan hasi eta bukatu (berdina-aldatu)

– Denbora-tarteak behaketarako eta erregistrorako Batzuetan behatu ondoren erregistratzen da, denbora guztian ezin baita behatzen egon eta erregistratzea ere garrantzitsua da, eta biak batera ezin dira egin.

– Egoera desberdinetan behaketa Klase hasieran, amaieran, astearte.. egoera ezberdinetan behatuko dira.

– Subjektu bat edo gehiago talde batean aukeratu behar Jada zehaztu.

-Behaketa eta erregistro denborak ongi interakzionatzea, bakoitzari denbora egokia eskainiaz, garrantzitsua da.

**Denbora-laginketa (gertakari mota, konplexutasuna, kopurua, maiztasuna, iraupena, neurketa-unitate mota; behaketa/erregistroa)**

– Zenbat denboraz → Informazio berria ez danen lortzen bukatuta.



– Zein maiztasunez

– Zeintzuk unetan

**Egoera-laginketa (jokabidea kanpo estimulu eta propietate funtzionalaren arabera aldakorra)** Egoera ongi aukeratzea. Adibidez, klase magistral edo praktikoetan aldea dagoela uste bada, bietan egin beharko da behaketa (uste bada horrek arreta mailan eragina zaingo duela).

**Subjektu-laginketa (taldean)**

– **Subjektuen hautaketa fokalizatua: ausazko geruzen arabeko hautaketa, eta denbora-tarteetan behatu** Ez dago soilik zoriaren menpe, haratagoa doa. Ikasleak arretaz egoten diren ala ez ikusteko, egin daitekeena da: zer nolako ezaugarriak izan behar dituzten pertsonak adi egoteko. Esaterako deialdiak eragina du, deialdi gehiago gastatu dituenak arreta gehiago, adinak ere eragina du. Ezaugarri horiek balizko faktore bezala identifikatu direnez multzoak egingo dira ikasle taldearen artean. Beti ere proportzio bera mantenduz. Zaharragoak direnak gutxiago badira ere proportzio bera mantendu beharko da. Zaharren %80a aztertzen bada, zaharrez %80a aztertu behar da.

Ondorengo hiruretan ez dugu horrenbeste sakonduko, garrantzitsuena lehenengoa besteetatik bereiztea da. Zori hutsean oinarritzen dira.

– **Denbora-tarteetan hautaketa subjektuen kopuruaren arabera: errotazioz, behatu beharreko subjektu bakoitzari denbora-tarte bat esleitu**

– **Arrazoi finko edo aldakorreko irizpidea hautatu (1,5,10,15,20....n, 1,2,3...n denbora-tarteetan behatu)**

– **Subjektuen hautaketako irizpidea aldatzen joan (adib, hasieran bikoitiak, gero bakoitiak....)**

#### 4.4. BEHAKETARAKO LEKUA

**Naturaltasuna-artifizialtasuna continuum** Askotan kontsultan hau egiteko ezintasuna. Egoera ez oso artifizialak aukeratu behar.

**Egoera naturalak (balidezia ekologikoa)** Egoera naturalek baliotasun ekologikoa dute. Bere ingurune naturalean aztertzea beti litzake egokiagoa. Beti posible ez denez, ahalik eta naturalen egin behar dira baldintza esperimentalak edota behaketak.

– **Subjektua egoten deneko giroan egiten den behaketa, ebaluatzaileak analisiak diren aktibitateetan mediatzen ez duenean. Edozein manipulaziok egoera “artifizial” egiten du** Ebaluatzaileak sortzen duen erreaktibitatea kontrolatzea ere garrantzitsua da, horrek egoera artifizialagoa izatea eragin baitezake.

– **Jokabide-arrastoak (eskutitzak, egunkariak, etab.)**

**Egoera artifizialak** Errekreatzea merezi duen edo ez ebaluatu behar da, beharbada pertsonak ez baita egoeran sartuko edo besterik gabe ez du mereziko.

– **Role-playing, exekuziozko testak, jokabideen emaitzak,...**

#### **4.5. BEHAKETAREN BERME ZIENTIFIKOAK**

##### **BEHATUAREN ERRORE-ITURRIAK** (Soslai-iturriak)

**Erreaktibitatea** Pertsonarengan ez du berdin eragiten erreaktibitateak. Behatu behar duen pertsonarengan zer eragin duen ikusi eta horren arabera erabakiko du nolako behaketa izango den. Bestalde, ohikuntza aldi bat jartzea oso erabilgarria da (kamarakin, gurekin). Guk ezin deu emaitzaren sorburua izan.

**Behatutako subjektuen ezaugarriak (adina, gaitasunak, sexua,...)** Ezaug-en arabera behaketa egokitu. Haurrak edo helduak behatzea ez da berdina. Haurrak errazago behatzen dira, erreaktibitatea ematen bada nabarmena baita. Helduekin ezin dugu horren argi izan erreaktibitatea ematen ari den edo ez.

##### **BEHATZAILEAREN ERRORE-ITURRIAK**

**Behatzailearen parte-hartze gradua** Gure parte-hartze gradua handiegia denean analisi objektua modifikatu dezakegu → erreaktibitatea. Jokabidea modifika baitezakegu. Horrek ez du esanahi ekidin behar denik, hala ere, jakin behar da, kasuan kasu zein den aukera egokiena.

**Igurikapenak** Lana oztopatzen badigute guztiz kaltegarriak izan daitezke.

**Ezaugarri pertsonalak (adina, sexua, abileziak,...)**

**Entrenamendua** “kategorien sistema” esaterako entrenamendu handiaren ondoren erabil daiteke, beraz, behar besteko entrenamendua ez badu behatzaileak, erroreak sor ditzake.

##### **BEHAKETA-SISTEMAREN ERRORE-ITURRIAK**

**Erregistro-mota** Teknikaren aukeraketa egokia ez bada datu ez egokiak erregistratu daitezke edota informazioa bidean gal daiteke. Irtenbide gisa: tekniken konbinaketa.

**Laginketa-mota** Subjektuak edo egoerak ez ongi aukeratzea. Adibidez, 8 pertsona klasean eta mota batekoak, gaur bezala, behaketaren ondorioak ezingo lirateke orokortu. (Prebentzio azterketaren aurreko eguna).

**Erregistroko aparatuen ezaugarriak** Bideo makinaren erlojuak desajuste bat izatea, atzeratzen joatea eta beraz, denbora erregistroa ez da egokia izango.

#### **4.6. BEHAKETARAKO PLANGINTZA**

Ongi aztertu ea beharrezkoa den behaketa egitea. Kalitate aldetik beste informazio iturri baliokiderik ez badigu behaketa egingo dugu.

**Behaketaren beharrik?** Merezi digu behaketa egitea? Garestia da eta denbora asko eskatzen du. Erantzuna baiezkoa bada ondorengo galdera guztiak zehaztu beharko ditugu.

**Zer behatu? (analisi-unitatea)** Subj-ak, harremanak, obj-ak...

**Nola behatu? (neurketa-unitatea)** maiztasunak, denbora?, egiteu?

**Zeren bidez behatu? (teknikak)**

**Nor behatu?**

**Non behatu?** Naturala (garestio)

**Zein denbora-tartez behatu?**

**Nork behatu?** Nik, epaileak

**Nola ezarri behaketaren balio zientifikoa?** Erreaktibitatea eta subjektibotasuna kontrolau.

#### **ARIKETA Behaketa metodologia**

Hemen agertzen dira ebaluazioko zenbait helburu. Baloratu ea behaketa metodologia aplikagarria edo gomendagarria den hurrengo egoeretan ebaluazioa egiteko. Hala balitz, eta behaketarako plangintzari jarraituz, deskribatu nola zehaztuko zenukeen behaketako prozedura.

**1.- Luberri ikastetxeko gurasoek, zentroan “bullying” (adinkideen jazarpena) gertatzen den ala ez jakin nahi dute.**

**2.- Telebistan agertzen diren iragarkiek (objektua) eduki sexistak dituzten aztertu nahi dugu.** Deerrigorrez behaketa bidez. Pertsonaien rolen arabera jokab sexista den edo jaso, talde bidez behatu, talde honek bai edo ez, hori ondo zehaztuta izan behar teoriar bidez. Kontsentsua izatea beharrezkoa fidagarritasunerako. Laginketa fase bat egotea beharrezkoa, kate publiko edo pribatuak aztertu behar. Prozedura automatikoaren erabilpena, grabatu TV. Baina hala ere aukeraketa in ber. (urtaroen, egunaren, orduaren arabera).

**3.- DBHko ikasle baten ikasteko estrategia eta jarduera nolakoa den jakin nahi dugu.**

**4.-26 urteko gizonezko bat alkoholismoaren mendekotasuna duen jakin nahi dugu.**

